



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

IV. ERANSKINA : ELKARLANA

Urtea :2020 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Gaitasun lehiakorrek bultzatzea enpresen arteko lankidetzaren bitartez, proiektu jakin batzuk eta enpresa aukera berriak garatzeko dimentsio egokia (merkatuei erantzuteko ahalmena) lortzeko.

ENTITATE ONURADUNAK

Gipuzkoan kokatutako eta lankidetzaren eta laguntza formularen baitako enpresak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute enpresetan esku-hartze eta esperimentazio proiektu hauek garatzeko jarduerak:

- enpresen arteko lankidetzarako ereduak diseinatzea eta aplikatzea.
- enpresen dimentsio berriak sortzea.
- jarduera produktiboak Gipuzkoara itzultzea (Reshoring), baldin eta aurrez azpikontrataturakoak, tokialdatutakoak edota Gipuzkoako enpresek EAetik kanpo garatutakoak badira.
- lankidetzan diharduten enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna handituko duten lankidetzaren proiektuak gauzatzea Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzaren eskumenen barruan.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Kostu hautagarrien % 75eraino



EMATEKO PROZEDURA

Lehiaketa bidezkoa , deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2020ko irailaren 29an, goizeko 12:00etan** amaituko da.

Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2021eko ekainaren 28a.**

Proiektuak justifikatzeko data: **2021eko uztailaren 28a**

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2020ko oinarri arautzaileak eta deialdia: IV.ERANSKINA - Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzea. (2020ko uztailaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 144 zk. 2020ko uztailaren 30ean](#))

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/elkarlana>
- Eskuera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus